



#ErnaberriAiaraldea



ERNABERRI **AIARALDEA**

ehbildu

The logo for 'ehbildu' is written in a bold, green, sans-serif font. Below the text is a horizontal line composed of five small, colored segments: pink, blue, yellow, green, and red.

Edukia

1. SAR HITZA	4
2. ETORKIZUN SENA	6
3. EGUNGO EGOERA	8
4. ETORKIZUNNEKO ERRONKAK	10
4.1. INDUSTRIA	11
4.2. LEHEN SEKTOREA	12
4.3. ZERBITZUAK	12
5. BERPIZTU PROGRAMA	13
5.1. ESKUALDEKO ESTRATEGIA GUNEA	15
5.2. ALTZAIRUTEGI, GALDATEGI ETA INDUSTRIA TRAKTOREAK	16
5.3. LURZORU ETA ERAIKIN INDUSTRIALAK BERRESKURATZEA	17
5.4. TURISMO ETA ZERBITZU JASANGARRIAK	18
5.5. NERBIOIKO PARKE LINEALA	19
5.6. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEA ETA HIRI-BIRSORKUNTZA	20
5.7. SUKALDE ZENTRALEKO SISTEMA	21
5.8. MUGIKORTASUN JASANGARRIA	22
5.9. TOKIKO ELIKAGAIEN TRANSFORMAZIOA	23
5.10. KULTURA SUSPERRALDIA	23

1. SAR HITZA



Urte batzuetatik hona, Aiaraldeko ehun ekonomikoa, eta batez ere industrial, agortze-sintomak erakusten ari da, enpresen itxiera eta plantillen murrizketa etengabeekin.

Errealitate honen atzean, neurri handi batean, arduradun politikoen nahiz enpresetako administrazio-kontseiluen epe laburreko nahiak eta ikuspegi estrategiko falta nabaria dago.

Agortze-prozesu hori bi faktorek bizkortu dute, batez ere, pandemiaren ondorio ekonomikoek, batetik, eta planeta osoko trantsizio energetikoari ekiteko premia atzeraezinak, bestetik. Bi faktore horiek bete-betean eragiten diote gas-petrolioaren eta automobilgintzaren sektoreen etorkizunari, neurri handi batean eskualdeko industria-ehunari eusten dioten sektoreak, hain zuzen. Beraz, gure ustez, krisialdian dago bai trakzio-enpresen egungo eredia, baita sektore horiei lotutako enpresa subsidiario ugariena ere, eta horrek zuzenean eragingo lioke Aiaraldeko enpleguari eta bertan aberastasuna sortzeari.

Eskualdeko egoeraren konplexutasunaz jabetuta, EH Bilduk Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean ponentzia bat sortzea sustatu zuen 2019an, egoera aztertze eta txoke-plan bat egiteko. Lehen aha-lerin hura legegintzaldiaren amaiera aurreratuak eta hauteskundearen deialdiak eten zuten.

Oraingo legegintzaldian berriz aktibatu zen eskualdeko eragile nagusien agerraldi-fasearekin amaitu berri du. Datorren ikasturtearen hasieran ondorioak aurkeztu beharko ditu eskualderako talka plan bat osatze aldera.

Bien bitartean, eskualdeko egoera zailtzen ari da egunez egun. Valvospainen itxierarekin batera, Tubacexeko 129 langileren kaleratzea gertatu da; eta ondorioz, sindikatuek, enpresa batzordeek eta herri mugimenduek lanpostuak defendatzeko herri aktibazio zein mobilizazio zabala sustatu dute.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak iragarri du 180 milioi euro bideratuko dituela Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea eskualdeetara, Berpiztu Planaren barruan, 20 trakzio-ildo aipatuz.

2. ETORKIZUN SENA



EH Bilduk lagundu
eta babestu egin
du eskualdeko
enpleguaren aldeko
herri mobilizazioa.
Eskualdearen
etorkizuneko garapena
elkartasun- eta
duintasun-printzipioen
gainean oinarritzeko
ezinbesteko ariketa
dela uste dugu.

Edonola ere, ez dugu ahaztu behar litekeena dela Aiaraldeko zenbait sektorek birmoldaketa sakona behar izatea etorkizuna izango badute, bai euren berariazko ezaugarriengatik, bai datozen hamarkadetan zibilizazio gisa ditugun erronken aurrean leku gutxi izateagatik. Beraz, hausnarketa estrategikoa egin behar da eskualdearen epe ertaineko etorkizunari eta orientazioari buruz. Orientazio hori ezin da eskualdetik egin espazio geografiko isolatu gisa, Hego Euskal Herriko antolakuntza sozioekonomiko konplexuaren zati gisa baizik.

EH Bilduk, eragile politiko eta gobernu alternatiba nagusi gisa, ezin dio uko egin Aiaraldeko gizarteari alternatiba erreal, gauzagarri eta itxaropentsu bat eskaintzeari. Izan ere, gure proiektu politikoak unerik gogorenetan ere irtenbideak eskaintzen ditu.

Gaur egun, Aiaraldeko sare sozioekonomikoa berreraikitze oinarriak finkatzen ari gara, eta, horretarako, aukera-espazioak eta etorkizuneko apustutzat eta proiektu eragiletzat jotzen ditugunak identifikatzen ari gara, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-esparru guztietan.



3. EGUNGO EGOERA

60-70eko
hamarkadetako
industrializazio
handiaren ondorioz,
bigarren sektoreak
ekonomian duen
pisu espezifikoa
eztaba daezina da.
Hala ere, lehen esan
bezala, 50 urteren
ondoren, agerikoa da
bertan detektatzen den
akidura.

Azken urteotan, kanpo-kapitalaren sarrera eta, beraz, erabakiguneen deslokalizazioa etengabeko tanta-jarioa izan da, batez ere enpresa ertainetan eta automobilgintzako enpresa laguntzaileetan.

Industria kritikoenetan errepikatzen den beste ezaugarri bat eskualdeko instalazioetan inbertsiorik ez egitea da, eta, aldi berean, nazioartean antzeko enpresak erosten eta modernizatzen inbertitu dute. Tutugintzako enpresa handien kasua da hori; izan ere, altzairutegi zaharrak dituzte, eta horietan ez da behar beste inbertitu, ez baitira egokitu egungo garai eta erronka ekonomikoetara. Era berean, pisu traktorea dute beiragintzako industriak, trenbideen ekoizpenak, automobilgintzaren industria laguntzaileak eta, neurri txikiagoan, lehen mailako zurgintzak, baina ez dirudi horietako batek ere tutugintzako industriaren pisua ordezkatu edo gainditu dezakeenik. Aipatzekoa da, halaber, eten egin diren industria-dinamiketatik hasi direla usteltzen ingurumenaren aldetik arriskutsuak diren eta etorkizun zalantzagarria duten erabilerarik gabeko eremu eta instalazioak, hala nola Lipmesa, Cortasa, Valvospain, Gama edo Somolsako hondakinak.

Industriaren itzalean, zerbitzu sektore garrantzitsu bat egituratu da azken hamarkadetan, ostalaritza eta merkataritza ardatz nagusitzat dituen, herrialde osoan bezala, pandemiak eta kontsumo-ohituren aldaketak larriki kaltetuta suertatu eta birmoldaketa-prozesu banari aurre egin beharko diotenak. Era berean, zaintza sektorea aldatu egingo da nahitaez, joera demografikoak direla-eta. Halaber, turismoa pixkanaka azaleratzen ari den azpisektoreetako bat da, ingurunearen natur eremuak eta lehen sektorearekiko sinergiak aprobetxatuz.

Lehen sektoreari dagokionez, proportzionalki eraginkortasun txikiena duena dela balioesten da, potentzialarekin alderatuta enplegarritasun txikia duelako. Abeltzaintzaren industriak marjina oso estuekin irauten du, eta, beraz, ustiategien tamaina egunetik egunera handiagoa da, baita finantza-produktuekiko mendekotasuna ere.



4. ETORKIZUNeko ERRONKAK

Egungo egoerari larritasun apur bat ere kendu gabe, EH Bilduk uste du krisi une hau aprobe txatu behar dela eskualdea XXI. mendeko gizarteek ipar-orratz izan beharko dituzten printzipio sozioekonomiko berrietara aldatzeko.

Natur ingurunearekin harreman arduratsuagoa izateko konponbideak bilatu behar dira, Aiaraldearen deskarbonizazioan aurrera eginez eta ahalegin guztiak eredu ekonomiko zirkularragoa eta mendekotasun gutxiagokoa eraikitzen bideratuz.

4.1. INDUSTRIA

Zalantzarik gabe, eskualdearen erronka nagusia industria sektorea birmoldatzea da. Tutugintzaren eta altzairugintzaren egokitzapenak eskatzen du azken belaunaldiko altzairutegi eraginkorrak ezartzea eta, nolahi ere, merkatu berrietara irekitzea, esaterako energia berriztagarrienera. Dibertsifikazio hori funtsezkoa izango da eskualdeko gainerako trakzio-enpresa handientzat, bereziki beiragintzari eta zurgintzari lotutakoentzat, baita industria arinarentzat eta tokiko ingeniartzentzat ere, energia berriztagarrien sektoreari, energia-eraginkortasunari eta klima-alaketara egokitzeari arreta berezia jarrita.

Baina, zalantzarik gabe, epe ertain eta luzera, birziklapenaren arloan eta ekonomia zirkularrean sakontzean gertatuko da aukera nagusia. Munduko logika berriek eta produktuen bizi-zikloek birziklapenaren inguruko jardura berriak artikulatzea eskatuko dute. Birziklapena eta berrerabilpena, gero eta zorrotzagoak eta kalitate handiagokoak. Gaur egun, gure eskualdean lehengaiak birziklatzen dira bertako industrietarako, hala nola, altzairua, beira edo granaila, baina tokiko industrietako beste hondakin batzuek ez dute tratamendu egokirik gaur egun, eta holako produktuen birziklapena eskualde mailan konpondu beharko da epe ertainean, eraikuntzatik eratorritako gero eta hondakin ugariagoekin bezala. Halaber, energia berriztagarrien sektore hasiberriak ere plaka fotovoltaikoak, bateriak, osagai elektronikoak eta bestelakoak birziklatzeko erronka konplexuari aurre egin beharko dio. Lehengai kritikoen birziklapenaren esparruak aukera berri bat ireki diezaioke Aiaraldeari.



4.2. LEHEN SEKTOREA

Lehen sektoreari dagokionez, etorkizuna desintentsifikatzea eta ekonomia zirkularren printzipioak aplikatzea da. Ezinbestekoa da Landa Garapeneko Planak garatzea, ekoizleek zentralitatea har dezaten lankidetzaren prozesuen bidez. Eboluzioak ekoizpen ekologikorantz jo behar du, logika produktibistetatik ihesi, eta inguruko baldintzetara egokitzeko gai diren ustategietan jarri behar du arreta, balio erantsi handiko produktuak bultzatuz, hala nola, txakolina edo beste produktu landu batzuk. Datozen hamarkadetakako erronka da lehen mailako nekazaritza eta abeltzaintza produktuen hornitzaile bihurtzea elikagai eskatzaile handia den Bilbo Handian.

Jasangarritasun irizpideen baitako basogintza ere aukera eremua izan beharko du etorkizunera, deskarbonizazioaren helburuan baliabide iturri izango delarik.

4.3. ZERBITZUAK

Azkenik, zerbitzu sektoreak eboluzionatu egin behar du, gizarte-premia berriei erantzuna emanez. Horren adibide dira zaintza ekonomia sendotu beharra, ostalaritzaren eta aisialdiaren birmoldaketa, edo kontsumo- eta banaketa-sare berriak. Era berean, helburua kalitate handiko turismo-eredu baterantz joatea izan behar da, bisitariari gure eskualdeko onena eskaintzeko eta beharrezko azpiegiturak eta zerbitzuak emateko.

Aiaraldeko turismo-eskaintzak eskualdeko balio potentzialak indartu behar ditu, eta inguruko eskaintzekin lotu. Ildo horretan, tokiko eskaintza paisajistikoa, kulturala eta gastronomikoa sustatu behar da, eta beste helmuga batzuekin lotu, hala nola Bilborekin edota Arabako Errioxarekin, ibilbide turistiko erakargarriak eginez.

Ildo estrategikoak garatzearekin batera, tokiko prestakuntzaren aldeko apustu garrantzitsua egin beharko da. Prestakuntzak funtsezko eginkizuna izango du sustatu nahi diren eraldaketak gauzatu behar dituzten pertsonen trebakuntzan.



5.BERPIZTU PROGRAMA



Eredu sozioekonomiko berri baterako bidean, premiazkoa da egungo egoera eraldatzen hastea etorkizun oparo baterako baldintzak sortzearekin batera. Ildo horretan, EH Bilduk Berpiztu programaren esparruan sustatu beharreko berehalako jarduera hauek proposatu ditu.

5.1. ESKUALDEKO ESTRATEGIA GUNEA (1M€)

Eskualdeko toki-erakundeek osatutako garapen-agentziak Eskualdeko ikuspegia duen zuzendaritza bateratu baten pean biltzea proposatzen da, honako helburu hauekin:

1. Eskualdeko ekonomiaren suspertzeari eragiten dioten politika guztien diseinua eta aplikazioa gidatzea, jarduerak koordinatzea, lankidetzan aritzea eta politika horiek inplikaturako erakundeekin ituntzea, lankidetzako-organo eta -tresna egokien bidez erakunde publikoen (EJ, AFA, BFA, Udalak) eta intereseko erakunde pribatuen parte-hartzea bultzatuz.
2. Elkarrekin lan egitea lurraldearen garapen ekonomiko orekatuaren alde.
3. Indarrak batzea, elkarrekiko konfiantza lantzea eta udalerrien arteko lehia-dinamikak baztertzea.

Erakunde horrek ekonomiaren eraldaketa zuzendu beharko du, honako gako hauetan oinarrituta:

1. Merkatuak dibertsifikatzea – Manufaktura berria – I+G+b
2. Klima-aldaketara egokitzea - Deskarbonizazioa
3. Ekonomia berdea – Birziklapena

Zuzendaritza bateratu hori eskualde naturaleko udalerrri guztiak bilduko dituen batzar batek gobernatuko du, eta haren aniztasun politikoa islatuko du. Egitura minimo eta malgu batekin, urteko aurrekontuaren zatirik handiena eskualdea biziberritzeko jardueretara bideratuko da. Gutxienez honako tresna hauek jarriko dituzte martxan:

EKONOMIA BERRAKTIBATZEKO ESKUALDE KONTSEILUA: Kontseilu aholku-emailea, sustatu beharreko suspertzearen protagonista diren

eragile publiko eta pribatu guztiek osatua.

SEKTORE EKONOMIKO BERRIENTZAKO PRESTAKUNTZA-ESKAITZA: Ikastetxeekin lankidetzan, programaturako behar berriei dagokien eskaintza bultzatuko du.

KOOPERATIBA-EKINTZAILETZAKO LABORATEGIA: Azpiegitura fisikoa, gizatiarra eta ekonomikoa, eskualdeko eredu sozioekonomiko berriarekin bat egiten duten kooperatiba-ekimenetarako laborategi gisa balioko duena.





5.2. ALTZAIRUTEGI, GALDATEGI ETA INDUSTRIA TRAKTOREAK (6M€)

Proiektu honen bidez, eskualdeko industria siderurgikoen lehen mailako azpiegiturak eta altzairua beroan eraldatzeko eta moldekatzeko labeak dituztenak hobetzen direla bermatu nahi da. Inbertsio partekatuaren bidez, gure enpresen lehiakortasun-baldintzak hobetu nahi dira, eta, aldi berean, instalazioen balio-bizitza handitu.

Eguneratze teknologikorako inbertsio horien ardatza energetikoa da, honako hauek lortzeko moduan:

1. Energia-kontsumoa murriztea.
2. CO2 isuriak murriztea.
3. Hondar-beroa berreskuratzea.
4. Energia berriztagarrien bertan ekoiztea eta kontsumitzea.

Era berean, energia aurrezpenaz eta eraginkortasunaz gain, ekoizpenaren kalitatea hobetzea eta lehia-abantailak sortzen dituzten faktoreak indartuko dituzten ukiezinak txertatzea helburu duten proiektuak abian jartzen dituzten industria ertain eta handiei lagunduko zaie.

Ildo horretan, eskualdeko industriak hobetzeak eta, bereziki, enpresa traktoreetan inbertitzeak erraztu egingo du haien proiektuak sendotzea eta, ondorioz, enplegua lortzea.

5.3. LURZORU ETA ERAIKIN INDUSTRIALAK BERRESKURATZEA (5M€)

Industria-hondakintzat hartzen dira industria-jarduera batean parte hartu duten lursailak, eraikiak izan ala ez, hondatu egin badira eta ezin bazaie beste erabilera bat eman aldez aurretik lehengoratzeko-lan sakonik egin gabe.

Lurzoru-eskasia dela-eta, lurzorua berrerabili egin behar da, eta hondakinak eta antzinako industria-orubeak balio handiko garapen-aukera dira. Industria-hondakinak eraistea aukera bat da espazio degradatu horiek hiri gunetan integratzeko, bizitegi-, ekipamendu-edo aisialdi-eremu gisa, edo, hala badagokio, berrerabiltzeko industria-proiektu berriak kokatzeko. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzak 21 milioi euroko laguntza-programa bat garatu zuen 1992-2013 aldian industria-hondakinak eraisteko, eta gure eskualdea programa horretatik kanpo geratu zen.

Industria-instalazio zaharkituek okupatutako azalerak berreskuratuz, lursail onenak askatu nahi dira, urrunagoko landa-lurzoruak okupatu beharrean. Horren adibide izan daitezke Lipmesa, Cortasa, Valvospain, Gama edo Somolsaren kokaleku zaharrak, kasu batzuetan hondakin abandonatuak edo fibrozementuak daudelako konplikatzen badira ere.

Era berean, gure udalerrietan inpaktu handiko industria-jarduerak daude hiri gunetan. Jarduera horiek industrialde egokietara lekualdatzea eta bertan birkokatzea eskatzen dute, hiru helburu hauekin:

1. Ingurumenean eta herritarrengan daukaten eragin negatiboa murriztea
2. Jarduera horiek zabaltzeko aukera ematea.
3. Lurzorua askatzea hiri birgaitzerako.

Eskualdeko ekonomia suspertzeko eta eredia eraldatzeko, ezarri beharreko jarduera berrietarako lurzoruak eta eraikinak erabilgarri egon beharko dira. Horregatik, inbertsio-lerro hau erabiltzen ez diren aktibo industrialak (lurzoruak, industria-hondakinak eta hutsik dauden industria-eraikinak) birgaitzeko eta berreskuratzeko erabiliko da, erakunde publikoen zerbitzura jartzearren orube eta industria-nabeen berehalako eskaerei erantzuteko behar diren mekanismoak.





5.4. TURISMO ETA ZERBITZU JASANGARRIAK (2,5M€)

Turismoa zeharkako jarduera ekonomikoa da, eta eragin handia du ingurumenean eta kliman, baita ekonomian ere, batez ere lurraldearen hazkunde ekonomikoan, enpleguan eta garapen sozial eta jasangarrian.

COVID-19 pandemiak gehien erasandako sektoreen artean dago turismoaren sektorea. Testuinguru horretan, beharrezkoa da turismo-sektoreko erronka eta aukera komunei aurre egitea, hala nola trantsizio ekologiko eta digitalean egin beharreko aurrerapenak, iraunkortasun sozioekonomikoa eta ingurumenekoa, kalitatezko enpleguaren sorrera, lanbide-gaikuntza eta langileen prestakuntza eta ETEei laguntzea.

Turismoan eta aisialdian ekoturismoaren, nekazaritza-turismoaren eta landa-turismoaren ildoan joera alternatibo berriak sortu behar direla kontuan hartuta, eredu berri horren azpiegitura traktoreetan inbertitzearen aldeko apustua egiten da, hala nola: aisialdiko bainurako aintzirak, kanpin ekologikoak edo Nerbioiko parke linealarekin lotura


Finantzaketa-lerro honetan sartu ahal izango dira turismoari eta aisialdiari lotutako zerbitzuak ezarri nahi dituzten proiektuak, betiere aurrez deskribatutako joerekin bat badatoz.

5.5. NERBIOIKO PARKE LINEALA (3,5M€)

Laudioko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak zenbait Legitasmo estrategiko zehazten zituen, eta horien artean Nerbioiko Parke Lineala nabarmentzen zen, Nerbioi ibaiaren ertzak eta ibilgua Delikatik Laudiora egokitzea bideratua, aisialdirako gune, ingurumen-intereseko eremu eta udalerriz gaindiko lotura berdeko elementu handi gisa erabiltzeko. Era berean, azpimarratu zen beharrezkoa zela ibilbideen eta jolas-eremuen sare bat antolatzea, hau da, espazioak eta ibilbideak egokitzea aire zabaleko aisialdiko jarduerak garatzeko eta oinezkoek eta txirrindulariek lurraldea gozatzeko. Lurralde-izaera nabarmena duten espazio libreak dira, Lurzoru Urbanizaezinean kokatuak, hots, Lurzoru Urbanizagarriaren kudeaketari atxikita ez daudenak.

Parkea sortu zenetik ia 20 urte igaro direnean, oraindik ere Delika eta Amurrio arteko lotunea egiteke dago. Horregatik, funts horiekin honako hauek egingo dira:

1. Ibilbide nagusiaren amaiera, hots, 'Nerbioi Parke linealaren' plan berezian zehaztutako zati hauek egiteko beharrezko obrak: 2.a (Delika), 3.a (Delikako ibarra), 4.a (Urduñako makaldia), 5.a (Urduñako kirol-eremua) eta 6.a (Saratxo).
2. Delikako meandroak berreskuratzea: 'Delikako Ibarren Aukera Eremua' delakoaren garapena.
3. Parke linealari lotutako gainerako espazioak eta sareak gauzatzea, 2006ko Planean jasotako ingurumen- eta mugikortasun-helburu eta -irizpideen arabera.



5.6. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEA ETA HIRI-BIRSORKUNTZA (3,5M€)

Ildo horren helburuetako bat trantsizio ekologikoa bultzatzea da, etxebizitzak birgaitzearen eta hiri-birsorkuntzaren eskutik.

Etxebizitzen eta eraikinen energia-eraginkortasuna handitzea da helburua, energia berriztagarrietan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan oinarrituta. Eraikin osasungarriak, energetikoki eraginkorrak eta karbonorik gabekoak lortu nahi dira. Ildo horretan, bizi-baldintzak duintzeko edo birgaitzeko ekintzak finantzatzeko dira:

1. Birgaitze energetiko pasiboa etxebizitza kolektiboko eraikinen ingurutzailan: estalkiak, fatxadak eta arotzeria
2. Etxebizitza kolektiboko eraikinen birgaitze energetiko aktiboa:
 - Berokuntza eta ur beroa
 - Argiztapena
 - Energia berriztagarria ekoiztea: eguzkikoa eta eolikoa
3. Beste jarduera batzuk:
 - Irisgarritasuna: Igogailuak instalatzea
 - Esekitokiak instalatzea
4. Hiri-ingurunea osoki hobetzeko jarduketak auzo degradatuetan
 - Berrurbanizazioa
 - Espazioak birnaturalizatzea
 - Mugikortasun arloko konponbideak

5. Ondarean eta hirigune historikoetan esku hartzeko laguntzak

Zeharka, eraikuntzaren sektore hori aktibatzen eta epe laburrean enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzen lagunduko da, eta, aldi berean, hiri- eta landa-birgaitzetik Demografia Erronkari aurre egiten lagunduko da. Ildo horretan, alokairuko etxebizitza gazteen eskura jarriko duten proposamenak bultzatuko dira, 30 urte bete aurretik emantzipatu ahal izateko. Era berean, gure udalerrietako hiri-kalitatearen hobekuntza kualitatiboak eta horiek edertzeak erakargarritasun handiagoa ekarriko du ikuspuntu turistikotik.

Proiektu honen potentzial handia eskualdeko eraikin eta etxebizitza publiko eta pribatuen parkearen zati baten antzinatasun- eta kontserbazio-baldintzek eragiten dute, baita ekonomia deskarbonizatzeko gaitasunak eta lanpostuak sortzeak ere.



5.7. SUKALDE ZENTRALEKO SISTEMA (2,5 M€)

Aiaraldean sukalde zentral bat eraikitzea proposatzen da garapen jasangarrirako iturri gisa, lehen mailako ekoizpenak, produktuen eraldaketak zein banaketak eta ostalaritzak osatutako balio-kateko eragileen arteko lankidetzatik abiatuta.

Eskualdeko elikadura-sistema eraldatzen lagunduko du, eta espazio eraginkorra eta erreala izango da lehengaiak eskuratzeko eta ingurumenari dagokionez jasangarriak, osasungarriak eta sozialki bidezkoak izango diren elikagaiak eraldatu, egin eta banatzeko.

Zerbitzu horri esker, eskualdeko zentro publikoetako jantoki kolektiboetarako beharrezkoak diren menuak prestatuko dira, eskualdean bertan kokatutako instalazioetan eta lehen sektoretik zein saltoki txikietatik datozen lehengaiekin. Azken batean, proiektu honen bidez, lehendik dauden instalazio publikoak balioetsi nahi dira, baita ekoizleentzako eta saltoki txikientzako merkaturatze-aukerak sortu ere.

Aiaraldeko Sukaldaritza Zentraleko sistemak elikadura-zerbitzua emango die, halaber, adinekoen etxez eteko laguntza zerbitzuari, pertsona lagunduei, hirugarren adinekoen egoitzei, ikastetxeei, behar bereziak dituzten pertsonen barnetegiei, jantoki sozialei, enpresei, partikularrei... eskualdeko jantoki publiko eta nahi duten pribatuentzat beharrezkoak diren menuak prestatzeko.

Lehengaien erosketaren kudeaketan, honako iraunkortasun-irizpide hauek lehenetsiko dira: hondakinak murriztea, berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten laguntzea eta 0 kilometroko elikagaien edota elikagai ekologikoen ekoizpena.





5.8. MUGIKORTASUN JASANGARRIA (1,5 M€)

Eskualdearen lurralde-oreka parametro iraunkorretan egituratzeko ezinbestekoa da mugikortasun-politika egoki bat aurrera eramatea. Are gehiago beharrezko trantsizio ekologikoaren egungo testuinguruan. Eskualdearen barrura zein kanpora begira. Zentzu horretan, hiru lan-ildo jotzen dira funtsezkotzat:

1. Eskualdeko mugikortasun elektrikoa ahalbidetzeko azpiegiturak ezartzea (errekarga-puntuak...). Eta ez soilik auto elektrikoengan pentsatzen: bestelako ibilgailuak ere kontuan hartuz: patinete elektrikoak, bizikleta elektrikoak eta abar.
2. Tren-geltokien eta herriguneen arteko hirigintza-erlazioaren hobekuntza. Eskualdean badira tren-geltoki batzuk herriguneekin ondo erlazionatuta ez daudenak, eta estrategikotzat jotzen da hirigintza-harreman hori hobetzea (besteakbeste, irisgarritasunaren ikuspegitik eta segurtasun eta genero ikuspegitik).
3. Renferen aldiriko zerbitzuaren eskumena bereganatzea, edo Euskotrenek berak azpiegitura erabili ahal izatea. Eskumena osorik eskuratzea litzateke lehentasun, baina, behin-behineko soluzio modura ere tren-zerbitzuen liberalizazioa balia liteke, Euskotrenek eskualdeari zuzenean emateko zerbitzu egokituago eta gertuago bat.

5.9. ELIKAGAIEN TOKIKO TRANSFORMAZIOA (1 M€)

A beltzaintza estentsiboko ustategien errentagarritasuna hobetzeko asmoarekin, tokiko haragi-produktuak ekoizteko instalazio kolektibo duinak jarri behar dira martxan, baserritarrek beste eskualdeetarako instalazioetara lekualdatu behar ez izateko. Bereziki, hurrengo bi instalazioak dira beharrezko:

1. Urduñako haragirako transformazio-zentroa.
2. Laudioko hiltegiaren eguneratzea. Instalazio berririk egin gabe, jada eraikita dagoen eraikinaren eguneratze bat egitea beharrezkotzat jotzen da, jarduerari eusteko.



5.10. KULTURA SUSPERRALDIA (0,5 M€)

Suspertze sozialaren parte ezinbestekotzat jotzen da kultura, zentzu zabalean ulertuta (arteak, sormena, ohiturak, euskara...), eta, hurrengo bi ildoetan bultzatzeko beharra ikusten da:

1. Eskualdeko kultura berpizteko plana. Etorkizun gerturako zein luzeagorako ikuspegiarekin egin beharrekoa. Azpiegiturretan (espazioak, galeriak...) zein programazioan edo ekimenetan eraginez.
2. Tokiko sortzaileak laguntzeko lerroa. Sortzaile gazteengan azpimarra berezia jarrita.



ehbildu

The logo for 'ehbildu' features the word in a bold, green, sans-serif font. Below the text is a horizontal line composed of four equal segments in pink, blue, yellow, and green from left to right.